



Urtarrilaren 12ko 2/2020 Errege Dekretuak, zeinak ministerioetako departamentuak berregituratzen baititu, 8. artikuluan Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioari esleitzen dio Gobernuak hezkuntza arloan, eta hezkuntza sistemako lanbide heziketaren eta enplegurako lanbide-prestakuntzaren arloan duen politika proposatu eta gauzatzeko eskumena. Halaber, apirilaren 28ko 498/2020 Errege Dekretuak, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duenak, Lanbide Heziketako Idazkaritza Nagusiari esleitzen dio, besteak beste, hezkuntza sistemako lanbide heziketa eta enplegurako lanbide-prestakuntza antolatzeke, garatzeko, ebaluatzeke, kudeatzeko eta berritzeko eginkizuna; azken lanbide-prestakuntza horri dagokionez, bereziki aipatzen dira langabeen lanbide-prestakuntza eta landunen lanbide-prestakuntza, deialdi nazionalak eta autonomikoak barne, baldin eta deialdi horiek badira profesionaltasun ziurtagiriekin lotutako prestakuntzarako, hezkuntza esparruko lanbide heziketa duala barne.

Eskumen horiek ematearekin batera, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako eta Hezkuntzako departamentuek erabaki zuten azken departamentu horri ematea enplegurako lanbide-prestakuntza egiaztagarriaren arloko eskumenak, besteak beste. Horren ondorioz, enplegurako lanbide-prestakuntza egiaztagarriak presentzia handiagoa izanen du lanbide heziketako ikastetxe publikoen sarean.

Enplegurako lanbide-prestakuntza egiaztagarriko irakasle izateko, profesionaltasun ziurtagiri desberdinak ezartzen dituzten errege dekretuetan ezarritako beharkizunak bete behar dira. Halaber, Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen azken xedapenetako hogeigarrenak Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoa aldatzen du, eta ezartzen du Bigarren Hezkuntzako katedradunen eta irakasleen kidegoetako irakasleek eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoko irakasleek eskaintza integratua duten titulartasun publikoko ikastetxeetan betetzen ahalko dituztela beren eginkizunak, lanbide-prestakuntzako modalitate guztiak irakatsiz, bakoitzaren profil akademikoaren eta profesionalaren arabera, baldin eta lanbide heziketako tituluen edo profesionaltasun ziurtagirien moduluak irakasteko baldintzak betetzen badituzte. Irakasle horiek beren lanposturako ezarritako lanaldia eta ordutegia osatzen ahalko dute beste modalitateetako prestakuntza-ekintzak emanez. Era berean, beren dedikazioa borondatez handitzen ahalko dute, eta interes publikokotzat joko da eta ez dute bateragarritasun-baimenik beharko.

Ildo beretik, uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legeak, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzkoak, 14. artikuluan dioenez, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoetako irakasleek –berariazko lanbide heziketan dituzten funtzioak betetzen jarraituz– lanerako eta etengabeko lanbide-prestakuntzan eginkizunak betetzen ahalko dituzte, beren profil akademiko eta profesionalaren arabera.

Nahiz eta ikastetxe publikoetako lanbide heziketako irakasleen dedikazio nagusia hasierako prestakuntzara bideratuta egon, antolaketa-arrazoiak eta irakaskuntzaren egokitasuna direla

medio beharrezkoa da noizean behin enplegurako lanbide-prestakuntzako ekintzetan parte hartzea. Horregatik, lehen aipatutako 26/2002 Foru Legearen 14. artikulua, halaber, adierazten du lanbide heziketako ikastetxeetako irakasleek beren lanposturako ezarritako lanaldia eta ordutegia osatzen ahalko dutela prestakuntza-modalitate horiek irakatsiz.

Artikulu horrek berak ezartzen du erregelamendu bidez zehaztuko dela enplegurako lanbide-prestakuntza emanen duten irakasleak izendatzeko edo kontratatzekeo prozedura, bai eta ordainsariak eta artikulu horretan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren beste alderdi batzuk ere.

Ondorioz, Hezkuntza Departamentuari enplegurako lanbide-prestakuntzaren arloan esleitutako eskumen-eremu berria ikusita, beharrezkotzat jotzen da LHko ikastetxeetako irakasleak izendatzeko prozedurak zehaztea, hezkuntza administrazioak ikastetxe publikoen sarean antolatzen dituen eskaintza horietan esku hartu dezaten, eta jarduera horien konpentsazioak finkatzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lanbide Kualifikazio, Enpresa eta Enplegurako Zerbitzuko zuzendaria

